Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

# BI HERRI-BARATZEN ERABILERAREN EMAKIDA-ADMINISTRATIBOA ZUZENEAN EMATEKO OINARRIAK.

## BASES PARA EL OTORGAMIENTO DIRECTO DE LA CONCESIÓN ADMINISTRATIVA DEL USO DE DOS HUERTAS MUNICIPALES.

### 1.- OINARRIEN XEDEA

Oinarrien xedea da Astigarragako "Astigarragako Emakumeon* Etxea elkartea"ri aisialdiko bi udal-baratzeren erabilera pribatiboa emateko baldintzak arautzea.

### 1.- OBJETO DE LAS BASES

Las bases tienen por objeto regular las condiciones de la concesión de uso privativo de 2 dos huertas municipales de ocio a "Astigarragako Emakumeon* Etxea elkartea" de Astigarraga.

### 2.- IZAERA JURIDIKOA

Emakida ondare-negozio juridiko pribatua da, eta horren bidez jabari publikoko ondasun baten erabilera pribatiborako baimentzen da. Oinarri hauek arautuko dute emakida, eta bertan aurreikusten ez diren gaietan lege hauek aplikatuko dira:

- Astigarragako herri-baratzeen emakida eta erabilera arautzeko erregelamendua.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea,
- Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua eta
- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa.

### 2.- NATURALEZA JURÍDICA

La concesión es un negocio jurídico privado patrimonial por el que se autoriza el uso privativo de un bien de dominio público. La concesión se regirá por las siguientes bases, siendo de aplicación, en lo no previsto en la misma, la siguiente legislación:

- Reglamento regulador de la concesión y uso de huertas municipales de Astigarraga
- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local,
- Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales y
- Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.

### 3.- BARATZEN EZAUGARRIAK

### 3.- CARACTERÍSTICAS DE LAS

Emakidan uzten diren bi baratzak dira, Astigarragako landa-lurren katastroko 04150-a partzelelako – udalak 2015. urtea geroztik herri-baratzen programarako bideratutako partzelako – 29 eta 30 zenbakia duten herri-baratzeak.

Bakoitzak 25-30 m²-ko azalera du eta eremuaren erdigunean daude, muga eginez Mendiaundi-Anibar udal-baratzeen elkargunearekin, udal-lurzatiaren erdian dagoena.

**HUERTAS**

Las dos huertas municipales objeto de concesión, son las huertas n.º 29 y n.º 30 que se ubican dentro de la parcela 04150-a del Catastro de Rústica de Astigarraga, que el Ayuntamiento destina desde el año 2015 al programa de huertas municipales.

Cada una tiene una superficie de 25-30 m² y se sitúan en la zona central, lindando con la zona de encuentro de las huertas municipales de Mendiaundi-Anibar, que se sitúa en el centro de la parcela municipal.

## 4.- EGINGO DEN JARDUERA

Administrazio-emakidaren helburua da elkarteak - Astigarragako aisialdiko udal-baratzeen programaren baitan – elkartearen baratze-proiektua garatzea. Horren helburu, lan-ildoak, hartzaileak, funtzioan eta ekintzak "*ASTIGARRAGAKO EMAKUMEON ETXEAREN HERRI BARATZEEN PROIEKTUA*" izeneko dokumentuan jasotakoak dira.

## 4.- ACTIVIDAD QUE SE VA A DESARROLLAR

El objeto de la concesión administrativa es el desarrollo del proyecto hortícola de la Asociación, dentro del programa de huertos de ocio municipales de Astigarraga. Su objetivo, líneas de trabajo, personas destinatarias, función y acciones son las recogidas en el documento "*ASTIGARRAGAKO EMAKUMEON ETXEAREN HERRI BARATZEEN PROIEKTUA*".

## 5.- EMAKIDAREN EPEA ETA IRAUPENA

Emakida 2031ko irailaren 10a arte egongo da indarrean.

Emakidaren epea igaro ondoren, Udalak proiektu bererako beste emakida bat ematea erabaki ahal izango du, eta bestela, jabari publikoaren erabilera pribatiboa eten egingo da eta herri-baratzak udalaren jabetzara itzuliko dira.

Emakida azkentzen denean, arrazoia

## 5.- PLAZO Y DURACIÓN DE LA CONCESIÓN

La concesión estará vigente hasta el 10 de septiembre de 2031.

Transcurrido el plazo concesional, el Ayuntamiento podrá acordar conceder otra concesión para el mismo proyecto, y en caso contrario, se suspenderá el uso privativo del dominio público y las huertas revertirán a la propiedad municipal.

edozein dela ere, “Astigarragako Emakumeon* Etxea elkartea”k Udalari entregatu beharko dizkio baratzeak, hurrengo 15 egunen barruan, kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokian.

A la extinción de la concesión, cualquiera que sea la causa, “Astigarragako Emakumeon* Etxea elkartea” deberá entregar las huertas al Ayuntamiento en el plazo de 15 días siguientes, en las debidas condiciones de conservación y funcionamiento.

## 6.- EMAKIDAREN KANONA ETA BERMEA

Jarduera irabazi-asmorik gabeko elkarte batek egingo duenez, ondasunaren erabilera pribatiboak onura ekonomikorik ez dakarrenez, ez da inolako kanonik ezartzen udal-higiezina erabiltzeagatik. Era berean, ez da ezartzen bermerik jartzearen betebeharra.

## 6.- CANON Y GARANTÍA DE LA CONCESIÓN

Dado que la actividad se va a desarrollar por una asociación sin ánimo de lucro, que el uso privativo del bien no conlleva beneficio económico, no se establece canon alguno por el uso del inmueble municipal. Tampoco se establece la obligación de aportar garantías.

## 7.- EMAKIDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Emakidadunak 29 eta 30. baratzeak era esklusiboan erabiltzeko eskubidea izango du, bai eta Mendiaundiko herri-baratzeen instalazio orokorrak erabiltzekoa ere, hala nola komunak, biltegiak, armairuak... dituen zerbitzu-eraikina, ur-biltegiak edo konpostaje-eremua.

Herri-Baratzeen Udal Erregelamenduaren IV. tituluan (*Erabilera eta Aprobetxamendurako baldintzak. Eskubideak eta betebeharrak*) eta V. tituluan (*Erantzukizunen erregimena*) araututako eskubide eta betebeharrak (20. artikulutik 30.era, biak barne) ere izango ditu.

Gainera, Udal Baratzeen Araudiaren 5. artikuluko erabilera-printzipio orokorrak bete beharko ditu, eta honako betebehar

## 7.- DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LA CONCESIONARIA

La concesionaria tendrá derecho al uso exclusivo de las huertas n.º 29 y 30, así como al uso de las instalaciones generales de las huertas municipales de Mendiaundi, tales como el edificio de servicios que alberga aseos, almacenes, taquillas…, los depósitos de agua, o la zona de compostaje.

Tendrá también los derechos y obligaciones regulados en el Título IV (*Condiciones de uso y aprovechamiento. Derechos y obligaciones*) y en el Título V (*Régimen de Responsabilidad*) del Reglamento de Huertas Municipales *(artículos 20 a 30, ambos inclusive).*

Además, deberá de cumplir principios generales de uso del artículo 5 del Reglamento de Huertas Municipales, y

hauek izango ditu:

- Emakidaren xedea eta bertan ezarritako mugak errespetatzea. Emakidadunak "*ASTIGARRAGAKO EMAKUMEON ETXEAREN HERRI BARATZEEN PROIEKTUA*" izeneko proiektuan zehaztutako jarduerak egin ahal izango ditu.

  Jarduera horietaz gain besteren bat egin nahi badu, aurrez baimena eskatu beharko dio udalari, eta horrek proiektuaren helburu nagusiarekin – Astigarragako aisialdiko herri-baratzak – zerikusia izanez gero, baimentzeko aukera izango du.

- Emakidunak utzitako herri-baratzak modu egokian erabiltzea, eta Ura eraginkortasunez eta arduraz erabiltzea.

- Astigarragako Emakumeon* Etxea Elkartea emakida arautuko duten oinarrien mende egongo da, eta horiek bete beharko ditu, bai eta emakidaren proiektuaren beste dokumentuetan jasotakoa ere, eta bertan jasota ez dagonentzat, bete beharko du Ondasunen Araudiko eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko Legeko aginduak ere.

tendrá las siguientes obligaciones:

- Respetar el objeto de la concesión y los límites establecidos en la misma. La concesionaria podrá realizar las actuaciones definidas en el "*ASTIGARRAGAKO EMAKUMEON ETXEAREN HERRI BARATZEEN PROIEKTUA*".

  La realización de actividades complementarias a las anteriores requerirá la previa solicitud al Ayuntamiento, que podrá autorizarlas en el caso de que estén relacionada con el objeto principal del proyecto, las huertas de ocio de Astigarraga.

- Hacer un uso adecuado de las huertas municipales cedidas, y hacer un uso eficiente y responsable del Agua.

- Astigarragako Emakumeon* Etxea Elkartea estará sujeta a las bases reguladoras de la concesión y deberá cumplir las mismas, así como lo recogido en otros documentos del proyecto de la concesión y, en lo que no conste en los mismos, a las prescripciones del Reglamento de Bienes y de la Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas.

## 8.- UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Udalak beretzat gordetzen du Astigarragako udal-baratzeen emakidak eta erabilera arautzen dituen Erregelamenduan araututako udal-baratzeen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak aldatzeko eskubidea, interes

## 8.- DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO

El ayuntamiento se reserva el derecho de poder modificar – por interés general – los derechos y obligaciones de las usuarias de las huertas municipales, reguladas en el Reglamento regulador de las concesiones y uso de huertas municipales de

orokorra dela eta.

Era berean, udal-baratzeak erabiltzeko irizpideak aldatu ahal izango ditu, interes orokorra justifikatu ondoren.

Bestalde, Udalaren betebeharrak dira:

- Emandako erabilera mantentzea elkarte emakidadunari, eta, hala badagokio, kalte-ordaina ematea.
- Baratz Elkartarekin lankidetzan aritzea Astigarragako aisialdiko udal-baratzeen programan, eta elkartearen esku jartzea programa gauzatzeko ezinbestekoak diren baliabide materialak.

Astigarraga.

Así mismo, podrá modificar – previa justificación del interés general – los criterios de uso de las huertas municipales.

Por otro lado, son obligaciones del Ayuntamiento:

- Mantener a la asociación concesionaria en el uso concedido, e indemnizarle en el caso que le corresponda.
- Colaborar con Baratz Elkarta en el programa de huertas municipales de ocio de Astigarraga, y poner a disposición de la asociación los medios materiales imprescindibles para llevar a cabo el programa.

## 9.- EMAKIDUNAREN ETA HIRUGARRENEN ARTEKO HARREMANAK

Emakida hori emandakotzat joko da, jabetza-eskubidea salbu eta hirugarrenei kalterik egin gabe.

## 9.- RELACIONES ENTRE LA ASOCIACIÓN CONCESIONARIA Y TERCERAS PERSONAS

Esta concesión se entenderá otorgada salvo derecho de propiedad y sin perjuicio de tercero.

## 10.- ITZULKETA

Administrazio-emakida amaitutakoan, Udalari itzuliko zaizkio emakidaren xede diren herri-baratzeak eta erabilera komuneko lanabesak. Horiek administrazio-emakidaren onuradunari laga zitzaizkionean zituzten baldintza berberetan entregatu beharko dira, erabiltzaile berriek erabiltzeko baldintza egokietan, kanpoko ekarpenek lurra funtsean aldatu gabe.

## 10.- REVERSIÓN

Finalizada la concesión administrativa, revertirán al Ayuntamiento las huertas objeto de la concesión y los aperos de uso común, que deberán ser entregadas en condiciones análogas a las que tenían cuando fueron cedidas a la beneficiaria de la concesión, en condiciones adecuadas para ser utilizadas por las nuevas usuarias, sin que la tierra haya sido modificada sustancialmente por aportes externos.

Administrazio-emakida bukatu aurretik, Udalak herri-baratzak eta lanabesak ikuskatuko ditu, haien egoera egiaztatzeko, eta hondatuta egonez gero –ez bada eguneroko erabilerarengatik– emakidaren onuradunari eskatuko zaio jatorrizko egoerara itzultzeko. Ikuskapen hori Udalak egin ahal izango du udaleko langileekin, edo horretarako izendatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoekin.

Konpontzeko edo hasierako egoerara itzultzeko obrak egiten ez badira, udalak modu subsidiarioan eta arduradunaren kontura egin ahal izango ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean edo hura aldatzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

Antes de extinguirse la concesión administrativa, el Ayuntamiento inspeccionará las huertas y los aperos, para verificar su estado, y en caso de deterioro – que no sea causa del uso diario – exigirá a la asociación que las reponga a su estado original. Esta inspección la podrá llevar a cabo el Ayuntamiento con personal municipal, o con personas físicas o jurídicas que designe al efecto.

En el caso de no realizarse las obras de reparación o restitución a su estado inicial, el ayuntamiento podrá llevarlo a cabo de manera subsidiaria y a cuenta de la persona responsable, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o normativa que lo modifique.

## 11.- ERRESKATEA

Udalak emakida baliorik gabe uzteko eskubidea beretzat gordetzen du mugaeguna baino lehen, betiere gerora sortutako inguruabarrek interes publikoa justifikatzen badute. Kasu horretan, emakidadunak eragindako kalteengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea eduki dezake.

## 11.- RESCATE

El Ayuntamiento se reserva el derecho de dejar sin efecto la concesión antes de su vencimiento, siempre que las circunstancias sobrevenidas justifiquen el interés público. En este caso, la asociación concesionaria podrá tener derecho a una indemnización por los daños causados.

## 12.- AZKENTZEKO ARRAZOIAK

Emakida azkendu egingo da, Udal Baratzeen Araudiaren 11. artikuluan araututako arrazoiengatik ez ezik, honako arrazoi hauengatik ere:

a) Elkartearen nortasun juridikoa

## 12.- CAUSAS DE EXTINCIÓN

La concesión se extinguirá, además de por por los supuesto regulados en el artículo 11 del Reglamento de Huertas Municipales, por las siguientes causas:

a) Por pérdida de la personalidad jurídica

galtzeagatik, edo udalaren baratze-programan 9 hilabete baino gehiago ez jarduteagatik, udalak aldez aurretik baimena eman ezean.

b) Elkarte emakidadunaren bat-egiteagatik, zatiketagatik edo nortasun juridikoa aldatzeagatik, aldez aurreko udal-baimenik gabe.

## 13.- ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK

Herri Baratzeen Udal Araudian administrazio-emakidaren titular guztientzat ezarritakoez gain, arau-haustetzat hartuko dira emakidadunaren egite edo ez-egite guztiak, baldin eta oinarri hauetan eta aplikazio orokorreko gainerako arauetan ezarritako betebeharrak ez betetzea badakarte.

Arau-hauste horiek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke, inguruabarrak eta eragiten den kaltea kontuan hartuta.

1.- Arau-hauste arintzat honako hauek hartuko dira:

- Elkarte emakidadunak dituen betebeharrak ez betetzea, baldin eta arau-hauste hori larritzat edo oso larritzat tipifikatuta ez badago.
- Herri-baratzen programaren esparrua, instalazioak eta tresnak erabiltzeko baldintza egokietan ez mantentzea.
- Udalari ez ematea programari buruz eskatzen den

de la asociación, así como por inactividad en el programa de huertas municipales por un periodo superior a 9 meses, salvo autorización municipal previa.

b) Por fusión, escisión o modificación de la personalidad jurídica de la asociación concesionaria sin autorización municipal previa.

## 13.- INFRACCIONES ADMINISTRATIVAS

Se considerarán infracciones, además de las establecidas para todas las personas titulares de la concesión administrativa en el Reglamento Municipal de Huertos Públicos, toda acción u omisión del concesionario que suponga un incumplimiento de las obligaciones establecidas en estas bases y demás normas de general aplicación.

Estas infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves atendiendo a las circunstancias concurrentes y al daño causado.

1.- Tendrán la consideración de infracciones leves las siguientes:

- El incumplimiento de las obligaciones que la asociación concesionaria tiene, si la misma no está tipificada como grave o muy grave.
- No mantener el recinto, las instalaciones y las herramientas del programa en las condiciones optimas para su utilización.
- No facilitar al Ayuntamiento la documentación que se pida en relación

dokumentazioa.

2.- Arau-hauste larritzat hartuko dira honako hauek:

- Udalak programari atxikitzen dituen gainerako langileei ez laguntzea.
- Udalaren aginduak ez betetzea.
- Urtebetean hutsegite arin bat behin baino gehiagotan egitea (oinarri honetan zein udal-araudian tipifikatutakoak).

3.- Arau-hauste oso larriak dira:

- Mendiaundi-Anibarko herri-baratzeen esparrua erabiltzeko udalak baimendutako pertsonei erabilera hori galaraztea.
- Udal-baratzeen beste erabiltzaile batzuekin lankidetzan aritzea, haiek udal-araudian arau-hauste administratibo gisa tipifikatutako egintza bat egin ahal izan dezaten.
- Tratu diskriminatzailea eta iraingarria Mendiaundi-Anibarko udal-baratzeen gainerako erabiltzaileekiko.
- Urtebetean hutsegite larri bat behin baino gehiagotan egitea (oinarri honetan zein udal-araudian tipifikatutakoak).

**14.- ZEHAPEN-ARAUBIDEA, LEHENERATZEKO BETEBEHARRA ETA**

al programa.

2º.- Se considerarán infracciones graves, las siguientes:

- No colaborar con el resto de personal que el Ayuntamiento adscriba al programa.
- El incumplimiento de las órdenes del Ayuntamiento.
- La reincidencia en la comisión de una falta leve (tanto de las tipificadas en esta base como en el reglamento municipal) en el período de un año.

3º.- Son infracciones muy graves las siguientes:

- Impedir el uso del recinto de las huertas municipales de Mendiaundi-Anibar a aquellas personas a las que el Ayuntamiento ha autorizado su uso.
- Colaborar con otras personas usuarias de las huertas municipales, para que esas puedan cometer un acto tipificado como infracción administrativa en el Reglamento municipal.
- El trato discriminatorio y vejatorio hacia el resto de personas usuarias de las huertas municipales de Mendiaundi-Anibar.
- La reincidencia en la comisión de una falta grave (tanto de las tipificadas en esta base como en el reglamento municipal) en el período de un año.

**14.- RÉGIMEN SANCIONADOR, OBLIGACIÓN DE RESTITUCIÓN Y**

## BETEARAZTE SUBSIDIARIOA

Zehapen-araubidea Herri-Baratzeen Udal Erregelamenduaren VI. Tituluan (d*iziplina-araubidea*) xedatutakoaren arabera arautuko dira (31. artikulutik 37.era, biak barne).

Dagokion zehapena alde batera utzita, jabari publikoari edo instalazioei kalteak eragiten bazaizkie, administrazio-emakidaren onuradunak gauzak jatorrizko egoeran utzi beharko ditu. Eta, egin ezean, udalak egingo du, subsidiarioki eta bere kontura, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean edo hura aldatzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

## EJECUCIÓN SUBSIDIARIA

El régimen sancionador, se regirá por lo dispuesto en en el Título VI (*Régimen Disciplinario*) del Reglamento de Huertas Municipales (artículos 31 a 37, ambos inclusive)

Con independencia de la sanción que proceda, si se produjesen daños al dominio público o a las instalaciones, la beneficiara de la concesión administrativa vendrá obligada a reponer las cosas a su estado original. Y en caso de no llevarlo a cabo, lo hará el Ayuntamiento subsidiariamente y a su costa, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o normativa que lo modifique.

## 15.- UDALAREN PERROGATIBAK

Toki-erakundeek beren ondasunekiko dituzten prerrogatiba edo ahalmen orokorrez gain (*Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 44. artikulua eta hurrengoak, 33/2003 Legearen 41. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 82. artikulua*) eta baldintza-agiri honetatik eta Herri-Baratzeen Udal Erregelamendutik eratorritakoez gain, Astigarragako Udalak – alkatearen bitartez – ahalmena du administrazio-emakidaren indarraldian sortzen diren arazo guztiak ebazteko, gai hauei buruz: emakida interpretatzea, hura betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, ondorioak eta azkentzea, betiere indarreko legerian ezarritako mugen barruan eta bertan adierazitako

## 15.- PERROGATIVAS DEL AYUNTAMIENTO

Además de las prerrogativas o potestades genéricas de las entidades locales con respecto a sus bienes (*artículos 44 y siguientes del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, artículo 41 de la Ley 33/2003 y artículo 82 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local*) y de las derivadas del presente pliego y del Reglamento de Huertas Municipales, el Ayuntamiento de Astigarraga –a través de alcaldia– tiene  la facultad de resolver cuantas cuestiones se susciten durante la vigencia de la concesión administrativa sobre su interpretación, resolución de dudas que ofrezca su cumplimiento, modificación por razones de interés público, efectos y extinción, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos señalados en la legislación vigente.

betekizunei lotuta.

Era berean, alkatetzak du administrazio-emakidaren onuradunek garatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmena, eta, ingurumen-teknikariaren edo horretarako izendatzen duen pertsona fisiko zein juridikoaren bitartez, herri-baratzak, eremu, ekipamendu edo tresna komunak ikuskatu eta gainbegiratu ahal izango ditu, baita horien erabilera egokia eta emakidaren xedearekin lotutako jarduera eta dokumentazioa ere, eta dagozkion zuzenketak eta zehapenak ezarri ahal izango dizkio emakidaren onuradunari.

Igualmente, alcaldía ostenta las facultades de inspección de las actividades desarrolladas por las personas beneficiarias de la concesión administrativa, quien a través de la técnica de medio ambiente o persona física o jurídica que designe para tal efecto, podrá inspeccionar y supervisar las huertas, zonas y equipamientos o enseres comunes, y su uso adecuado, así como la actividad y documentación relacionada con el objeto de la concesión, e imponer a la beneficiaria de la concesión las correcciones y sanciones pertinentes.

## 16.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Administrazio-emakidaren interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sortutako auziak alkatetzak ebatziko ditu. Alkatetzaren erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta berehala betearaztekoak izango dira. Nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, edo errekurtsoa jarri ahal izango da jurisdikzio eskudunaren aurrean.

Emakidaren ondoriozko prozedura judizialak, betiere, udal-ondasuna kokatuta dagoen lekuan jurisdikzioa duten auzitegi eskudunen mende daudela ulertuko da.

## 16.- JURISDICCIÓN COMPETENTE

Las cuestiones surgidas sobre la interpretación, modificación y resolución de la concesión administrativa, y efectos de ésta, serán resueltas por Alcaldía, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa, y serán inmediatamente ejecutivos, pudiendo ser recurridos potestativamente en reposición ante el alcalde, o ser impugnado mediante recurso ante la Jurisdicción competente.

Los procedimientos judiciales que pudieran derivarse de la concesión se entenderán siempre sometidos a los Tribunales competentes con jurisdicción en el lugar donde radica el bien municipal.